

Bakardadea

Claudia (El Salvador, 1974). "Euskal Herrian, 2017ko uztailaren 5ean, 'lur hartu nuen'; ondo gogoan dut", dio. Mostoles eta Guadalajaran egon ostean, eta zenbait erakundeek laguntza luzatu ondoren, halako batean, Gipuzkoara iritsi zen. Eta hemen bizi da. Gure artean.

Hiesi

"Mehatxu eta beldurraren ondorioz, korrika eta presaka irten behar izan genuen gure herritik. Hilabete gutxi batzuetan billeteak erosteko dirua bildu, eta hegazkin bat hartu genuen Madrilera. Lagun bat etorri zitzaigun bila, eta lehen gauean, gela batean egin genuen lo, nire bi haur txikienak (adin txikikoak orduan), bikoteak eta laurok".



"Ez nuen askorik pentsatzen. Ez zitzaidan inoiz burutik pasa ere egin, egunen batean nire herritik irten egin beharko nuela sendia han utziz. Pentsaezina. Han alaba zaharrena, nire aita eta anai-arrebak bizi dira. Teknologi berriak hurbildu gaituzte baina besarkatzea (apapachar) asko gustatzen zaigunez, beraiek aurrez aurre ikusteko irrikan nago".

Sendia



Ezezaguna

"Zenbait unetan, bai. Ziurgabetasun asko izan nuen Euskal Herrira iritsi aurretik: 'non ote dago esan diguten herri hori?', galdetzen nion nire buruari. Behin baino gehiagotan, nahiz eta jendez inguratua egon, bakarrik sentitu izan naiz. Horri aurre egitea ez da batere erraza...".

Bakardadea

“Une askotan, ederki sumatu dut. Malenkonia... Bikotea eta hurrekin egon arren, lagunen batekin egon behar duzu tarteka hitz egiteko. Aukera izan dut hemen lagunak egiteko, eta ez bakarrik nire herrikideak, bertako jendea baizik. Lagun oso onak gainera.



“Oso ondo hartu gaituzte hemen. Ez dut Euskal Herritik inora joan nahi. Gustura gaude. Caritaseko boluntarioa naiz; niri eman zidatena besteei ematen saiatzen naiz. Iritsi nintzenean beldurra, antsietatea, bakardade izugarria... pairatu nituen. Egun, Caritasera laguntza eske etortzen den etorkin batean ere, gauza berbera ikusten dut bere begietan”.

Hospitalitatea



Arrotz

“Hitz hori, immigrante, atzerritarra, legez kanpoko... hitzekin lotuko nuke. Ricardo Arjona, Guatemalako kantariaren [“El mojado”](#) kanta gomendatu nahi dut. Entzuten dudan aldiro... Niretzat ereserkia da! Amerikako Estatu Batuetara (AEB) abiatzen diren etorkinei eskainia dago, paperarik ez dutenei; “Bustiak” (mojados) esaten diete”.

Izapidere burokratikoak

“Nahiz eta dokumentazioa biltzea ez den batere erraza, beharrezkoa da legezatzeko... Ez dago beste biderik. Urrian, hiru urte beteko dira hemen gaudela: ea zer esaten diguten errotze eta herritartasunaren inguruan... Asilo eskariaren bidea ere aurrera doa baina...”



Lagunak

“Nire herrian ez ditut gutxi utzi! Urrun badaude ere, babes handia dira oraindik ere. Institutuko lagunekin ere kontaktuan jarraitzen dut. Ea noiz bilduko garenaren inguruan hitz egiten aritzen gara: ilusio horri eusten diogu. Hemen, egin ditugun lagunaren eskutik, laguntza jaso dugu. Hau da, lagunak direla erakutsi digute”.



“Badut itxaropena gure egoera konponduko dela; gure immigrazio egoera, alegia. Nire alaba zaharrena, nire aita (73 urte ditu), nire anai-arrebak, besarkatzeko gogoia dut. Ea ez den asko luzatzen. Jada, egun bat gutxiago geratzen da amets hori gauzatu dadin. Hori da motibatzen gaituena, eurei, zein guri”.

Itxaronaldia



Asiloa

“Prozesu luze baten amaiera, eta bizitza berri baten hasiera. Hots, ostalaritza eta turismoa ikasketak dituen nire alaba zaharrena hona ekartzeko aukera, besteak beste. Bi urteko haur bat du, eta ez dugu oraindik aurrez aurre ezagutzen...”.